

## **FUNTSEZKO JARDUERAK**

Gure elkarteak, lehen esan bezala bi gela izango ditu, bionboz banatuak eta bertan hainbat ekintza egingo ditugu.

Alde batetik, gurasoen eta haurren arteko tailerrak; batzuetan familia bakoitza beraien kideekin eta beste batzuetan beste familietako kideekin. Irteerak ere egingo ditugu denok batera taldeetan, leku ezberdinak ezagutzeko eta familiarekin asteburuetako irteerak egiteko normalean denborarik ez dagoenez, hau da, aisialdirako denborarik ez dugunez, hori aprobetxatzeko.

Jolasteko denbora ere izango dute gure familiek (beraien artean jolastu, rolak aldatu eta besteen paperean jarri...). Lehen esan bezala, baita ere, hitzaldiak antolatuko ditugu, adibidez, aditu bat etorriko da familiei eta hurrei hitz egitera, hau da, familientzako baliagarriak izan daitezkeen aholkuak ematen, metodologia ezberdinei buruzko informazioa ematera... Honetaz gain, familiekin (helduekin bereziki), batzarrak egingo ditugu, ikusten ditugun arazoetaz hitz egiteko eta familiak eskaintzen dizkiguten aholkuak entzuteko eta denon artean ados jartzeko. Gure elkartearen helburuetako bat familia guztiak gustura egotea da.

Hilabete bakoitzean saiatuko gara asteburu bateko bidai bat egiten. Ez da zertan bidai luzeak egin behar; gehienez, bi orduko bidaiak egingo ditugu. Izan ere, bidai luzeak haurrentzako oso astunak izan daitezke; horrela, egoera saihestu ahalko dugu. Bidaietaz aparte, egun pasak ere egingo ditugu, eta gure probintzian zein beste probintzia batzuetara mugitu gaitzake egun pasa horiek aurrera eramateko.

Bidaien aukeraketa eta bertan egingo ditugun ekintzak ere, denon artean erabakiko ditugu. Ekintzak elkarrekin erabakitzea oso garrantzitsua iruditzen zaigu, horrela denon artean erabakita gusturago egongo garelako. Ekintza horiek amaitu ostean, bertan dagoen jatetxe batean jan dezakegu, edo bestela, etxetik eraman dezakegu janaria, hori egun pasa denean, baina, asteburu pasa izaten garenean, bertan dagoen landetxe bat alokatu dezakegu eta bertan janariak egin ditzakegu, denon parte hartzea sustatzen.

Guraso eta hurrekin ekintzak egiteko alokatutako solairuan, lehen esan bezala, bi gela desberdin izango ditugu, eta gela bakoitzean ekintza desberdinak egingo ditugu. Egun

batzuetan familiak elkarrekin ekintzak egingo ditugu, beste egun batzuetan berriz, haurrak alde batetik eta gurasoak bestetik egongo dira, bananduta. Ekintzen artean: eskulanak, ipuin kontaketa, Durangon arratsalde pasa, altxorraren bila, hitzaldiak, karaokea, mozorro jaia... aurki daitezke.

Familia arloan oso zaila da liskarrik zein arazorik ez egotea. Hortaz, hezitzaileak garenez, familia bakoitzak duen egoerari buruz hitz egiteko batzarrak egingo ditugu (beharrezkoak ikusten baldin baditugu eta familia konforme badago), familiak gustura egotea gure lana baita.